

## Otsailaren 18ra arte luzatzen da A-636 Beasain-Bergara errepideko bidesariari buruzko aurrez aurreko zerbitzua



**A-636 Beasain-Bergara**  
autobian ere bai,  
askoz gehiago!

**ERRAZTASUN GEHIAGO**    **AURREZPEN HANDIAGOA**    **INBERTSIO HANDIAGOA**

**Informazio gehiago:** [info@bidegi.eus](mailto:info@bidegi.eus) / 943 105 106 / GI-20 - KP / PK 14,800 - Aritzeta-Usurbil

### ***Zerbitzuaren helburua erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea da.***

2022ko urtarrilaren 18tik indarrean dago Beasain eta Bergara artean A-636 autobia erabiltzeagatik kanona kobratzea. Honen aurrean Gipuzkoako Foru Aldundiak, joan zen urrian informazio-kanpaina bat abiarazi zuen gipuzkoar guztientzat eta, bereziki, Beasain-Bergara autobidetik gertu dauden eta teleordainketako gailurik ez duten biztanleentzat. Kanpainaren helburua erabiltzaileek Abiatu gailua aurrez aurre eskatu ahal izatea, beren ibilgailuaren matrikula banku-txartel batekin lotzea eta erabiltzaileen zalantzak argitzea izan da.

Kanpaina urriaren 25an hasi zen eta herriz herri ibili diren Bidegiko arreta zerbitzukoek 5.089 herritar artatu dituzte urtarrilaren 21a arte. Hauetatik 2.562ek Abiaturen eskaera bertan egin dute, beste 335ek autoaren matrikula kreditu txartelari atxikitzea aukeratu dute eta besteek informazioa etxera eraman dute. Izandako erantzun ona medio eta jasotako deien aurrean, Foru Aldundiak, Bidegiren batera, Goierri, Urola Garaia eta Deba Goienako herrietan antolatutako aurrez aurreko zerbitzua luzatzea erabaki du.

Zerbitzuaren egutegi berria urtarrilaren 31an hasiko da Beasainen eta otsailaren 18an amaituko da Bergaran. Udalerrietan aurrez aurreko zerbitzu ibiltarikoak noiz eta non egongo diren egutegia hau da:

- **BEASAIN.** Urtarrilak 31. Otsailak 8. Udaletxean.
- **ZUMARRAGA.** Otsailak 1-14. Zelai Arizti kultur etxean.
- **URRETXU.** Otsailak 2-11. Udaletxean.
- **IDIAZABAL.** Otsailak 3. Udaletxean.
- **LEGAZPI.** Otsailak 4-15. Udaletxean.
- **ORMAIZTEGI.** Otsailak 7. Gizarte etxean.
- **BERGARA.** Otsailak 9-18. Ondartzan (AP-1) goizez eta Udaletxean arratsaldean.
- **EZKIO-ITSASO.** Otsailak 10. Udaletxean.
- **ANTZUOLA.** Otsailak 16. Udaletxean.



Aurrez aurreko zerbitzuaren ordutegia: Goizez 9:30-13:30. Arratsaldez 16:00-20:00

Arreta-gune guztietan tarifei, deskontuei eta eskaera-inprimakiei buruzko informazioa dago.

Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako azaroaren 6ko 4/2020 Foru Arauaren arabera, ibilgailu motordun guztiei eragiten die kanonak, motozikletei izan ezik. Kanonaren helburua da azpiegitura erabiltzen duenari helaraztea gure ahalmen handiko errepideek behar dituzten eraikuntza-, kontserbazio- eta kudeaketa-kostu handiak berreskuratzeko lana.

Tag Abiaturi dagokionez, eskaera edo matrikula banku-txartel bati lotzea bide telematikoz egin daiteke Bidegiren webgunean ([www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus)) edo aurrez aurre Aritzetako Bezeroaren Arreta Zerbitzuan (izen bereko zerbitzugunean, GI-20 errepidean, 14,800 KP).

#### A-636 Tarifak

IBILBIDEA	ABIATURIK GABE	ABIATUREKIN (Deskontu progresiboak, gutxienez 6 joan-etorri hilean)		
		1-8 TRANSITO 25%	9-20 TRANSITO 55%	21 TRANSITOTIK AURRERA 75%
<b>Beasain-Ormaiztegi</b>	<b>0,38€</b>	<b>0,28€</b>	<b>0,17€</b>	<b>0,09€</b>
<b>Ormaiztegi-Zumarraga</b>	<b>0,74€</b>	<b>0,55€</b>	<b>0,33€</b>	<b>0,18€</b>
<b>Legazpi/Urretxu-Bergara</b>	<b>1,41€</b>	<b>1,06€</b>	<b>0,63€</b>	<b>0,35</b>
<b>Legazpi/Urretxu-Antzuola</b>	<b>0,48€</b>	<b>0,36€</b>	<b>0,22€</b>	<b>0,12€</b>

Zarautz, 2022/01/24

## Ampliado hasta el 18 de febrero el servicio de atención presencial sobre el peaje de la A-636 Beasain-Bergara



***El objetivo es que los usuarios puedan solicitar de forma presencial el dispositivo Abiatu.***

El 18 de enero de 2022 entró en vigor el cobro de un canon por el uso de la autovía A-636 entre Beasain y Bergara. Con tal motivo la Diputación Foral de Gipuzkoa puso en marcha el pasado octubre una campaña informativa dirigida a todos los guipuzcoanos y guipuzcoanas y, en especial, a los vecinos y vecinas de las poblaciones cercanas a la autovía Beasain-Bergara que no posean ningún dispositivo de telepeaje. El objetivo de la campaña ha sido que los usuarios puedan solicitar el dispositivo Abiatu de forma presencial, vincular la matrícula de su vehículo a una tarjeta bancaria y resolver las dudas de las y los usuarios.

La campaña comenzó el 25 de octubre y los servicios de atención presencial de Bidegi han atendido hasta el 21 de enero a 5.089 personas en los municipios del Goierri, Alto Urola y Alto Deba en los que han estado. De ellos, 2.562 han cursado la solicitud de Abiatu en el mismo momento, otros 335 han optado por vincular la matrícula del coche a la tarjeta de crédito y otros se han llevado la información a casa. La buena respuesta y las llamadas recibidas han llevado a la Diputación Foral, junto con Bidegi, a prorrogar el servicio de atención presencial.

El nuevo calendario del servicio comenzará el 31 de enero en Beasain y finalizará el 18 de febrero en Bergara. El calendario del servicio presencial en los municipios es el siguiente:

- **BEASAIN.** 31 de enero. 8 de febrero. Ayuntamiento.
- **ZUMARRAGA.** 1-14 de febrero. Zelai Arizti kultur etxea.
- **URRETXU** 2-11 de febrero. Ayuntamiento.



- **IDIAZABAL.** 3 de febrero. Ayuntamiento.
- **LEGAZPI.** 4-15 de febrero. Ayuntamiento.
- **ORMAIZTEGI.** 7 de febrero. Gizarte etxea.
- **BERGARA.** 9-18 de febrero. Ondartza (AP-1) por las mañanas y en ayuntamiento por las tardes.
- **EZKIO-ITSASO.** 10 de febrero. Ayuntamiento.
- **ANTZUOLA.** 16 de febrero. Ayuntamiento.

Horario del servicio de atención presencial: 9:30-13:30 y 16:30-20:00.

En todos los puntos de atención se ofrece información sobre tarifas, descuentos e impresos de solicitud.

Según la Norma Foral 4/2020, del 6 de noviembre, aprobada por las Juntas Generales de Gipuzkoa, el canon afecta a todos los vehículos de motor, excepto las motocicletas. El objetivo del canon es que quien utilice la infraestructura contribuya a la recuperación de los elevados costes de construcción, conservación y gestión de las carreteras de alta capacidad.

En cuanto al TAG Abiatu, la solicitud de la misma o la vinculación de la matrícula a una tarjeta bancaria se puede realizar por vía telemática en la página web de Bidegi ([www.bidegi.eus](http://www.bidegi.eus)) o de forma presencial en el Servicio de Atención al Cliente de Aritzeta (zona de servicio del mismo nombre, carretera GI-20, PK 14,800).

#### Tarifas A-636

RECORRIDO	SIN ABIATU	CON ABIATU (Descuentos progresivos con un mínimo de 6 tránsitos/mes )		
		1-8 TRÁNSITOS 25%	9-20 TRÁNSITOS 55%	DESDE EL TRÁNSITO 21 75%
<b>Beasain-Ormaiztegi</b>	<b>0,38€</b>	<b>0,28€</b>	<b>0,17€</b>	<b>0,09€</b>
<b>Ormaiztegi-Zumarraga</b>	<b>0,74€</b>	<b>0,55€</b>	<b>0,33€</b>	<b>0,18€</b>
<b>Legazpi/Urretxu-Bergara</b>	<b>1,41€</b>	<b>1,06€</b>	<b>0,63€</b>	<b>0,35</b>
<b>Legazpi/Urretxu-Antzuola</b>	<b>0,48€</b>	<b>0,36€</b>	<b>0,22€</b>	<b>0,12€</b>